



Bere Maiestatearen Erregearen mezua

03/10/2017

Gabon,

Une oso larriak bizi ditugu gure bizitza demokratikoan. Eta egoera hau ikusita, mezua bidali nahi diet espainiar guztiei. Denok izan gara Katalunian gertatutakoaren lekuko, Generalitateak –legez kanpo– Katalunian independentzia aldarrikatzeko duen helburua dela eta.

Kataluniako zenbait agintari aspalditik ari dira behin eta berriz, ezagueraz eta nahita, Konstituzioan eta Autonomia Estatutuan ezarritakoa ez betetzen, eta azken Lege horrek aintzatesten eta babesten ditu bertako instituzio historikoak eta autogobernua.

Hartu dituzten erabakiekin modu sistematikoan urratu dituzte legez eta legeari jarraikiz onartutako arauak, eta Estatuko botereekiko desleialtasun onartezina erakutsi dute. Eta Estatu horren ordezkariak dira, hain zuzen ere, Kataluniako agintariak.

Zuzenbide-estatu ororen oinarri demokratikoak hausteaz gain, bizikidetzaren eta harmonia hondeatu dituzte Kataluniako gizartean, eta zoritxarrez, banatu egin dute. Kataluniako gizartea hautsita eta lehian dago. Kataluniako agintariek espainiar guztiak bateratzen dituzten adiskidetasuna eta solidaritate sentimenduak mespretxatu dituzte; eta jokabide axolagabe horrekin egonkortasun ekonomiko eta soziala arriskuan jar dezakete, bai Katalunian bai Espainia osoan. Laburbilduz, Kataluniako instituzio historikoez jabetzeko saiakera onartezina izan da. Agintari horiek, modu argi eta irmoan, zuzenbidetik eta demokratizatik kanpo jardun dute. Espainiaren batasuna eta subiranotasun nazionala urratzen saiatu dira, hau da, espainiar guztiak elkarbizitzaren inguruan demokratikoki erabakitzeko duten eskubidea.

Hori guztia eta egoera larri hau ikusita, interes orokorren alde egiteko konpromiso irmoa eskatzen duena, Estatuko botereen ardura da orden konstituzionala babestea eta instituzioek behar bezala funtziona dezatela lortzea, bai eta Zuzenbide-estatuaren eta Kataluniako autogobernuaren iraunaldia ere, betiere, Konstituzioan eta Autonomia-estatutuan oinarrituta.

Horrez gain, zenbait mezu helarazi nahi dizkiet espainiar guztiei, eta bereziki katalanei.

Katalunian bizi diren guztiei zera gogorarazi nahi diet: duela zenbait hamarkada Estatu demokratiko batean bizi garela, eta bide konstituzionalak eskura daudela nahi duen pertsonak bere ideiak legea betez defenda ditzan. Izan ere, denok dakigu errespeturik gabe ezin dela bakean eta askatasunean oinarritutako bizikidetzaren demokratikorik lortu, ez Katalunian, ez Espainian, ez munduko beste edozein tokitan. Espainia konstituzional eta demokratikoan denek dute tokia,

gainerako herrikideekin elkartasunean bizitzeko.

Badakit Katalunian kezkak eta egonezinak daudela agintari autonomikoen jokabidea dela eta. Kezkatuta bizi direnei esan nahi diet ez daudela bakarrik, eta ez direla bakarrik egongo; gainerako espainiarren laguntza eta solidaritatea dutela, eta Zuzenbide-estatuak berme guztiekin defendatzen dituela haien askatasuna eta eskubideak.

Eta gertaera hauek urduritasunez eta penaz bizi dituzten espainiar guztiei baretasuna, konfiantza eta itxaropena eskatzen diet mezu honen bidez.

Garai zailak dira, baina aurre egingo diegu. Egoera oso konplexua da, baina aurrera egingo dugu. Gure herrialdearengan konfiantza dugulako eta garenaz harro sentitzen garelako. Gure oinarri demokratikoak sendoak eta irmoak direlako. Eta halakoak dira milioika espainiarrek bakean eta askatasunean bizi nahi dutelako. Horrelaxe eraiki dugu Espainia azken hamarkada hauetan. Eta bide horretatik jarraituko dugu, lasai eta ausardiaz. Bide horretan, denok lortu nahi dugun Espainia hobetu horretan, Katalunia ere egongo da.

Bukatzeko, espainiar guztiei zuzenduko naiz berriro ere Koroak Konstituzioarekiko eta demokraziarekiko hartua duen konpromiso sendoa, espainiarren bizikidetzaren alde dudan jarrera, eta Errege gisa Espainiaren batasunarekiko eta iraunkortasunarekiko dudan konpromisoa azpimarratzeko.